

Bigarrenak Pyrenea triatloian

Zalakain anaiak eta
Aizpuru izan dira ▶ 5



Saharako haurrak udan hartuko dituzten familiak behar dira eskualdean

PROGRAMA ▶ 'Uda bakean 2005'
programa martxan jarri dute;
uztailan eta abuztuan etorriko dira

UDALA ▶ Udalek laguntza ematen
dute bidaietarako, sendagile
azterketarako eta besteetarako ▶ 2-3



Saharako bi haur Tolosan. HITZA



Parte-hartze handia izan da 37. Aizkardi mendi ibilaldian: 393 partaide

VILLABONA ▶ Igandean Aizkardi elkarteak antolatutako 37. mendi martxan parte-hartze handia izan zen: Euskal Herri osoko 393 partaide izan ziren irteeran. 359k burutu zuten ibilaldia. Antolatzaileak eta parte-hartzaileak gustura agertu dira. HITZA ▶ 6

LEITZA ▶

Asketa Ttiki itzultzeko gogoz etorri da etxera

Katalunian izan da
Els Verdums koruari
ikustaldia egiten ▶ 7



Asketako hiru kide. J.ASTIBIA



bidali zure argazkiak!

argazki
hitza lehiaketa

NORA BIDALI

Posta elektronikoz: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

Posta arrunta: Argazki lehiaketa. Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza
Araba etorbidea 5, atzea • 20400 TOLOSA

Nahi izanez gero argazkiak ekar daitezke Tolosako HITZAren egoitzara

**Oinarriak www.tolosaldeko-hitza.info
webgunean eskura ditzakezu**

1. SARIA: Afari eder bat 2 lagunentzat Berrobiko Iriarte Jatetxean
2. SARIA: Adunako Zabala sagardotegian 2 lagunentzako afari eder bat
3. SARIA: Mahala baserriko produktu naturalen sorta aparta

GIZARTEA ▶

Sahararik gertuago

'Uda bakean 2005' programa abian da Tolosaldean; maiatza bitartean izango da aukera bertan izena eman eta Saharako kanpamentuetako haurrei uztaila eta abuztuan etxeko atek zabaltzeko



Udan saharar haurrak euren etxean izaten dituzten familiako kideak. HITZA



Suhiltzaileekin egun bat igaro zuten saharar haurrek iaz. HITZA

IÑIGO TERRADILLOS
NOELIA LATABURU

Tajani, Adala, Youla, Mohamed, Maina, Gulum, Abdala, Agida... udan Tolosaldera etortzen diren Saharako gaztetxoetako batzuen izenak dira. Izan ere, duela urte batzuk abian jarri zen uztaila eta abuztuan haur eta gaztetxo hauei gure etxeko atek zabaltzeko kanpaina eta aurten go *Uda bakean 2005* programak lehen urratsak eman ditu.

Tolosaldeko hainbat udalek, Euskal Herriko beste hainbat bezala, laguntza eskaintzen dute saharar hauek gure etxetara ekartzeko. Ematen duten laguntza horrekin garraioa ordaintzen da, sendagilearen azterketa eta beste hainbat gastu.

Gauza jakina da oso egoera zailean aurkitzen direla sahararrak, Marokok kanporatuak izan eta gero, beraien lurretatik at bizi baitira, Aljeriak utzitako desertu zatian. Desertu batean bizitzeak zailtasun handiak dakartza, udan izan dezaketen 50 gradutik gorako tenperatura kontuan hartzea besterik ez dago hortaz jabetzeko. Azken batean, kanpotik heltzen diren laguntzetatik egin ahal dutela aurrera esan daiteke, eta hauek urtetik urtera murriztuz doaz. Faktore hauek guztiak aintzat hartzen baditugu eta guztion laguntza behar dutela

ulertuta, horretarako bide bat izan daiteke *Uda bakean 2005* programa.

Ume hauek gogotsu egoten dira, itxaropentsu, euren uea noiz iritsiko zain. Bertan izan direnek bizitako esperientzia kontatzen diete errefuxiatuen kanpamentuetako gainerako haurrei, eta bizipen hauek oso positiboak eta aberasgarriak izan ohi direnez guztiak izaten dute hona etortzeko nahia. Gure lurretan oporraldi polita izateaz gain eta desertuan udan izaten dituzten bizi baldintza txarretatik aldentzeaz gain, asko ikasten dute bere egonaldian eta osasun arazoak artatu ahal izaten dituzte.

Saharar umeak euren etxetara hartzten dituztenek ere asko izaten dute ikasteko beraiengandik. Izan ere, kultura ezberdineko jatorria dutekin hartu emana izateak aberasten du gurea ere. Bestalde, ume hauek etxean izatean, segituan bihurtzen dira sendiko beste kide. Horrekin batera, euren bizitzaz, egoeraz, historiaz... gehiago jakin nahi izaten da, eta urtean zehar bisitaldiak izaten dira errefuxiatuen kanpamentuetara gaztetxoaren egoera eta bere familia ezagutzeko.

Errepikatzeko esperientzia

Kanpamentuak bisitatu dituztenek ahaztu ezinezko espe-



Ibarrako San Bartolome jaietan ere parte hartzen dute sahararrek. HITZA

rientzia jasotzen dute. Pasa den Aste Santuan bisitan joan zen lehen aldiz Amalia Adurriaga txaramarra. «Oso gustura egon nintzen, hango egoera ikusi gabe ezin da benetan sinetsi horrela bizi direnik», dio Adurriagak han bizitakoaren inguruan. Halaber, umeek ematen duten maitasuna eta bertako txirotasuna nabarmentzen du txaramarrak, eta berriro Saharako herrira bueltatzeko asmoa azaldu du.

Urtero haurrak hartzen dituztenen artean Uberetagoena, Malkorra, Astiasaran, Agirre eta Eizagirre sendiak aurki-

tzen dira. Bada haur desberdinek izan dituenik, urtero errepikatzen dutenak, baina dezentzat ez dago udarik ume hauek etxean izan gabe. Familia hauen esanetan, nahikoa da umezale izatea, gogoia izatea eta lagundu nahi izatea programa honetan parte hartzeko.

Tolosaldea Sahararekin elkarteko koordinatzaile den Ana Traperok familiaren babesa izateaz gain ekitaldi ugari antolatzen direla azpimarratzen du. Horrela, Euskal Herriko jaietan parte hartzen dute —sanferminetan edo sanbartolometan esaterako—, zine-

mara joaten dira, Aquarium-a bisitatzen dute, zirkoan izaten dira, suhiltzaileekin egun bat igarotzen dute, mendira igozten dira edo itsasoa ezagutzen dute besteak beste.

Badirudi, onura besterik ez dakarrela haur hauentzat Euskal Herriko egonaldiak. Esperientzia hauek guztiak bizi nahi dituenak maiatza amaiera arte izango du aukera izen emateko programa honetan. Horretarako, Tolosako Gizarte Zerbitzuarekin (943 69 74 60), edo Tolosaldea Sahararekin elkartearekin (645 71 07 89) harremanetan jar daiteke.



Sanferminak ere ezagutu zituzten iaz. HITZA



Tolosan izandako Saharako bi gazteko. HITZA



Saharako emakumea haurra besoetan duela. I.TERRADILLOS

IBARRA ▶ KIROLA

‘Spinning’ ikastarorako ordutegi zabalagoa

Arrakasta handia dela-eta astearte eta ostegunetan ordubeteko ikastaroa gehitu da



Arrakasta handia lortu du kirol honen praktikak Ibarrran. HITZA

I. TERRADILLOS

Modak ere badu eraginik kirol munduan eta kirol berriek gero eta arrakasta handiagoa lortzen ari dira gurean. *Spinning*-a ere ez da salbuespena eta Ibarrrako Belabieta udal kiroldegia eskaintzen dituen *spinning* ikastaroetan jende askok izena eman duenez, eta oraindik ere eskaria oso handia denez, ordutegia zabaltea erabaki dute. Horrela, lehendik martxan zeuden taldeez gain, ikastaro berri bat eratu nahi dute, kirol hau praktikatu nahi duen inor kanpoan gera ez dadin.

Eskola ordutegi berria astearte eta ostegunetarako presatu dute, 19:30ean Belabietan. Saio bakoitzak 50 minutuko iraupena du eta apirila, maiatza eta ekaina bitartean emango dira, bazkideentzat 24 euroren truke izango delarik hileko; gainontzekoek, berriz, 30 euro ordaindu beharoko dituzte.

Spinning-a bizikleta estatiokoaren gainean eginiko entre-

namendu motari deritzo, Johnny G. triatletak asmatu-ko. Kirol hau maila bakoitzari egokitzen da eta praktikak ari den pertsonaren ahalmen fisiko eta mentalak garatzen ditu. *Spinning* eskolak musikaren laguntzaz ematen dira, kirolariei erritmo aldatzeko interpretatzeko eta pedalei noiz eta zenbatero eragin jakiteko baliagarria suertatuko zaiona.

‘SPINNING’ IKASTAROA ▶

ZENBAIT DATU

Iraupena: Apirila, maiatza eta ekaina. 50 minutuko saioak.

Ordutegia. Astearte eta ostegunetan 19:30ean.

Lekua. Ibarrrako Belabieta udal kiroldegian.

Prezioa. Bazkideak 24 euro hilean. Gainontzekoak 30 euro hilean.

Telefonoa. Argibideetarako zenbakia 943 67 15 44.

AMEZKETA ▶

Gaur ezker abertzalearen batzarra

Ezker abertzaleak gaur 20:30ean antolatu den herri batzarrerako deialdia luzatu du. Batzarra Amezketa gela polibalentean egingo dute eta apirilaren 17ko Euskal Autonomia Erkidegoko hauteskunderen gaia jorratuko dute, besteak beste.

IBARRA ▶

Batasunaren batzarra Subegi elkartearen

Ibarrrako Batasunak batzarrerako deialdia egin du gaur arratsaldeko 20:00etan, Subegi elkartearen, hila honen 17rako deitu dituzten hauteskunderen harira.

IBARRA ▶

Festa Batzordeak lehen bilkura egingo du

Ibarrrako Udal Kultura eta Gazteria Batzordeak San Bartolome jaien antolaketari ekin asmoz, datorren astelehenean, apirilaren 11n, 19:30ean Benito Izagirre kultur etxean Festa Batzordearen bilkura antolatu du eta herritar guztiak deitu ditu bertara azaltzeko.

AMEZKETA ▶

Odol ematea gaur medikuaren etxean

Gaur 18:30etik 20:30era bitartean odola eman ahaliko dute Amezketarrek medikuaren etxeko lehen pisuan.

iragarki laburrak ▶

BASABI Inmobiliaria

Pablo Dorosabel, 40
1. planta - 7. bulegoa
20480 TOLOSA
Tel. eta Faxa: 943 65 55 87
mug.: 660 368 934

Abaltzisketa. Sei etxe atxiki salgai. Sukaldea, egongela, bainugela eta terrazarekin, lehen solairuan. Hiru logela, batek bainua du, bainugela eta bi terraza bigarren solairuan, bi autorentzako garajea eta bokoa beheko solairuan.

Andoain. 75m²-ko etxebizitza kanpoaldera, igogailua, eguzkitsua. Berritzeko.

Anoeta. Duplex etxebizitza estreinatzeko salgai. 4 logela, 2 bainugela, egongela, sukaldea eta terrazarekin. Garajea aukeran.

Belautza. 1.060 m²-ko pabilioia

salgai; erabat argitsua eta garabiarekin.

Belautza. 225 m²-ko pabilioia alokairuan eskaintzen da. Argitsua. Ur eta elektrizitate instalazioarekin.

Bidanía. Sei etxe bifamiliar, garajea, sukaldea, egongela, bainugela eta terrazarekin lehen solairuan, hiru logela, bainugela eta terraza bigarren solairuan.

Donostia. Duplex zoragarria. 70 m², berritua, Gros.

Donostia. Urbieta kalea, 90 m²-ko etxebizitza. Berritzeko.

Donostia. Donostizarra. 75 m²-ko

etxebizitza salgai, kanpoaldera, oso eguzkitsua eta itsasora begira.

Ibarra. 75 m²-ko pabilioia salgai eta 2.500 m²-ko lur saila. Nekazal ustiapenerako egokia.

Ibarra. Bi apartamentuko etxe baten berrikuntza laster, garajea eta lur sailarekin.

Ibarra. 85 m²-ko etxebizitza salgai. Dena kanpoaldera, bizitzera sartzeko moduan eta garajearekin aukeran.

Lizartza. 14.000 m²-ko pabilioiak salgai, 320, 400, 625 eta 922 m²-ko moduluetan eta eraikuntza berrikoak.

Tolosa. 75 m²-ko eraikuntza berriko etxebizitza salgai Agintari kalean. Igogailua eta trastelekuarekin.

Tolosa. Berriturik dagoen 90 m²-ko etxebizitza salgai Santa Klara kalean. Atzealdean baratz propioarekin.

Tolosa. Gernikako Arbolan, 155 m²-ko etxebizitza salgai, kanpoaldera, berritzeko.

Tolosa. Gudari kalean, Samaniego kalearekin iskinetan, 110 m²-ko etxebizitza, dena kanpoaldera, eguzkitsua eta igogailuarekin. Berritzeko premia.

EAE-KO HAUTESKUNDEAK ▶



Batasunak mitina eman du

TOLOSA ▶ «Oinarri objektiboak eta subjektiboak daude egun gatazka konpontzeko prozesuan beste jauzi politiko bat egiteko, eta egoera horretan funtsezkoak dira hauteskundeak». Hori azaldu zuen herenegun LABeko idazkari nagusi Rafa Diezek, Batasunak Trianguloan egindako ekitaldi politikoan. Bozketak «bakerako eta demokraziarako» izan behar direla ere esan zuen. Batasuneko hautagai Karmele Aierbek jardun zuen Diezekin batera ehunka lagunen aurrean. Tarteetan, eskualdeko preso politikoak omendu zituzten. J. SAIZAR



Okupazio sinbolikoa Altzon

ALTZO ▶ Tolosaldeko Batasunak okupazio sinbolikoa egin zuen joan den larunbatean Altzoko udaletxean, udal hauteskundeetan Altzolanean bizi plataformak 139 boto eta EAJk 65 jaso zituela, eta EAJren izenean, Pilar Zubiarrainek alkatetza hartu zuela salatzen. «Hauteskundeotan gertatzen dena gertatuta ere, herritarren borondatea errespetatu dezaten exijitzen diegu autonomistei, eta, batez ere, EAJri», esan zuten Altzoko udaletxera bildutako ezker abertzaleko 30 bat lagunek. HITZA

Zure botoa
aralar
aro berria, bide berriak
erabaki ezkerretik
www.aralar.net

TOLOSA-IBARRA ▶ TRIATLOIA

Zalakain anaiak eta Aizpuru, bigarren Pyrenea triatloian

Egoitz Zalakain tolosarra lasterka lehiatu zen, Ilazki anaia bizikletan, eta Aizpuru ibartarra trabesiako eskian



Ezkerretik hasita, Ilazki Zalakain, Unai Aizpuru eta Egoitz Zalakain, Pyrenea triatloieko podiumean, Gourette eski estazioan, Frantziako Pirinioetan. Bigarren postua lortu zuten Tolosaldeko gazteek. HITZA

LEIRE MONTES

Pyrenea triatloi lasterketa jokatatu berri dute, martxoaren 27an, Aste Santuko oporraldietan, Gourette eski estazioan (Frantziako Pirinioak). Korrika, bizikletako eta trabesiako

eskiko probetan lehiatu behar izan zuten parte-hartzaileek. 130 talde lehiatu ziren, horietako hiru Euskal Herritik joanak. Tolosaldeko ordezkariak izan zuten triatloian: Egoitz eta Ilazki Zalakain anaia tolosarrek eta Unai Aizpuru ibartarrak osatu-

tako taldea, hain zuzen ere. Beste bi taldeak Zarauzkoak ziren. Bakoitzak bere modalitatean, oso lan txukuna egin zuten Tolosaldekoek Pyrenean: bigarren izan ziren sailkapen nagusian.

«Pau-eko kaleetan hasi zen

lasterketa. Egoitz Zalakainek 17 kilometroko oinezko lasterketari egin behar izan zion. Ibilbidea nahiko laua zirudien arren, bideak zituen gorabeherak oso gogorra egin zuten lasterketa. Egoitz bikain aritu zen, eta Rebeñaq herrira iristean laugarren postuan zen jada», azaldu dio HITZARI Unai Aizpuru taldekideak.

Rebeñaq-en Ilazki anaiak hartu zuen lekukoa, Gouretteko eski estazioa bitarteko bidea egiteko, bizikletaz. «Lehendabiziko 25 kilometroetan ibilbide laua aurkitu zuten txirindulariek, baina Aubisque mendateko malda gogorrek kirolari bakoitza bere lekuan utzi zuten». Zalakainek «igoera bikaina» egin zuen, eta sailkapeneko hirugarren postuan sailkatzea lortu zuen.

Gouretteko eski estazioan zain zuen Aizpuru, lekukoa hartzeko prest. Eskiatzen, 770 metroko desnibelari aurre egin behar izan zion ibartarrak. «Ordurako lehen postua nahiko erabakita zegoen, baina bigarrenarako eta hirugarrenarako lehia bizia zegoen oraindik». Estazioko «azken malda gogorretan» erabaki zuen lehia: Aizpuruk aurrea hartu zion Florent Bourdalle frantziarrari. Tolosaldekoek Pyrenea triatloiko bigarren postuarekin egin ziren, horrela.

Lasterketa amaitzean, helmugan, «oso pozik» zirela gogoratu dute Tolosaldeko hiru gazteek. «Podiumera igotzeko sentsazio hori berriro gozatu» luketeela argi dute.

Bestalde, zarautzarrek osatutako taldeak laugarren postua lortu zuen, «azken metroetan hirugarren posturako lehia bizia izan zuten arren».

TOLOSA ▶

Batasunak herri batzarrera deitu du gaur

Batasunak batzarrak egingo ditu aste honetan Euskal Herriko herritan. Tolosan, gaurko deitu du herri batzarrera. *Hauteskundeak eta aurrera begira ditugun erronkak* lelopean, Herri Biltokian egin dute hitzordua, 20:00etan. Bestalde, «eskubide zibilen eta politikoen urratzea salatzeko» larunbateko Bilboko manifestaziorako autobusa antolatuta dute: 15:00etan aterako da, Triangulotik.

TOLOSA ▶

Ikastaro berria Tolosaldea Goi Mailako LHIn

Tolosaldea Goi Mailako Lanbide Heziketa Institutuak (LHI) Automata programagarrri hastapenak ikastaroan plazak badaudela adierazi du. Gaur hasiko dira saioak, 18:00etatik 21:00etara, eta doakoak dira. Izen-ematea 943 65 11 47an.

TOLOSALDEA ▶

Euskara irakasle izateko ikastaroa, AEK-k antolatuta

Gipuzkoako AEK Glotodidaktika ikastaroa eskainiko du hilaren 11tik maiatzaren 26ra, Antiguako AEK euskaltegian. Izen-ematea 943 32 71 72 telefono zenbakian.

TOLOSA ▶ KZGUNEAN

Ikastaro eta mintegi aukera zabala hilabete honetan Pablo Gorosabelgo eta Amarozen KZguneetan

Izen-ematea zabalik da egunotan; telefonoz, Internetez edo KZguneetan egin daiteke

L. MONTES

Pablo Gorosabelgo eta Amarozen KZguneetan hainbat ikastaro eta mintegi antolatuta dituzte hilabete honetarako. Izena emateko epea zabalik da egunotan. Interesa duenak 943 65 37 20 eta 902 25 25 95 telefono zenbakietara dei dezake, www.kzformacion.net helbidean izena eman, edo KZguneetara jo. Hauexek dira eskaintza berriak:

AMAROZ

‘On-line’ egin BEZaren aitorpena. Etzi, ostirala, 17:00etatik 19:00etara.

Kutxanet enpresak I: Kutxarekiko zure kontuak kudeatzen. Hilaren 14an, 17:00etatik 19:00etara.

Kutxa enpresak II: sortak, txekak, kuadernotxoak... 15ean, 17:00etatik 19:00etara.

Babestu zure ordenagailua birrus informatikoetatik. Hilaren 18an, 17:00etatik 19:00etara.

Babestu zure negozioaren segurtasun informatikoa. Hilaren 19an, 17:00etatik 19:00etara.

Egin segurtasun kopiak eta gorde. 20an, 17:00etatik 19:00etara.

Zure negozioaren ekipo infor-

matikoak osorik hartuta babestu: Panda Platinum Internet Securiti 2005. Hilaren 21ean, 17:00etatik 19:00etara.

Interneten egin BBVarekiko operazio guztiak. Hilaren 22an, 17:00etatik 19:00etara.

Behetentsioko buletinak ‘on line’ tramitatzea. Hilaren 26an, 17:00etatik 19:00etara.

Ikasi dokumentuak digitaliza-

tzen eta identifikazio elektronikoko txartela erabiltzen. Hilaren 27an, 17:00etatik 19:00etara.

GOROSABEL

Internet KZgunea. Hilaren 18tik 29ra, 09:00etatik 13:00etara, edo 16:00etatik 18:00etara.

Eustat mintegia. Hilaren 25ean, 18:00etatik 20:00etara.

Kutxa I eta II mintegiak. Hilaren 26an eta 27an, hurrenez hurren, 18:00etan hasita eta 20:00ak arte.

Outlook mintegia. Hilaren 28an, 18:00etatik 20:00etara.

ANOETA ▶

Zuhaitz Eguna antolatu dute larunbaterako

Anoetako Udalak Zuhaitz Eguna antolatu du datorren larunbaterako, hilaren 9a. Goizeko 10:00etan Jakoba Errekondo ariko da landare eta zuhaitzei buruz hitz egiten. Hitzaldia amaitu ondoren, hamaiketako emango da udaletxeko arkupean. Ondoren zuhaitz landaketa egingo da herrian. Adin guztietako jendeari egiten zaio parte hartzeko gonbitea.

ANOETA ▶

Antsietateari buruzko hitzaldia Alkartasunan

Alkartasuna Biltokiak, Anoetako jubilatuen elkarteak, hitzaldi bat antolatu du Kutxaren laguntzaz, elkarteko kideei zuzenduta. *Antsietatearen kontzeptua eta sinonimoak* izena du hitzaldia eta Arantxa Gutierrez izango da hizlaria. Solasaldia bihar egingo da, Alkartasuna Biltokian, 18:30ean hasita. Ondoren meriendatxo bat dastatzeko aukera izango da.

IBARRA ▶

'Tocando el vacío' filma gaur zine klubean

Tocando el vacío filma ikusi ahal da gaur Ibarako Gaztetxean egiten den zine klubean. 21:45ean hasiko da saioa. Kevin MacDonald britaniarrak zuzendu du filma eta Brendan Mackey eta Simon Yates dira aktoreak. Peruko Andeak mendikatean Joe Simpson-ek bizitako eta gero liburu baten islatu zuen mendi esperientzia kontatzen da filman.

IBARRA ▶

'Zaharrak berri xou' bertso ekitaldi berezia

Galtzaundi Euskara Taldeak antolatuta, bertso emanaldi berezia izango da etzi Ibarrran. Hiru bertsolari gazte ariko dira: Xabier Silveira, Jokin Uranga eta Fredi Paia. Emanaldiaren izena *Zaharrak berri xou* da eta Euskal Herri osoan zehar dabilta ekitaldia ematen. Gaztetxean izango da ekitaldi berezi hau eta gaueko 22:00etan hasiko da.

VILLABONA ▶

Jai Batzordearen bilera bihar udaletxean

Herriko festetarako Jai Batzordeak bilera egingo du bihar arratsaldeko 20:00etan, udaletxean eta interesa duen herritar oro gonbidatzen du bilera horretan parte hartzera. Bi gai jorratuko dira bilkuran. Lehenengoan batzordearen funtzionamenduari buruz ariko dira. Bigarreno gaian, berriz, aurtengo Santio Jaiak izango dira hizpide.

VILLABONA ▶ MENDIZALETASUNA

Parte-hartze handia izan da 37. ibilaldian

la 400 lagun atera ziren eta 359k amaitu zuten 43 kilometroko ibilbidea

IMANOL GARCIA

Ibilbidea kilometro batzuetan luzatu bazen ere, Aizkardi mendi elkarteak antolatutako 37. ibilaldian parte-hartzea normalean izaten dena baino handiagoa izan zen. Guztira 470 lagunek eman zuten izena eta azkenean 393 abiatu ziren. Aurreko urtean ere antzeko kopuruak izan ziren, baina orduan XIV Orduko Martxarako prestaketa moduan hartu zuten ibiltariak. Antolatzaileek balantze baikorra egin zuten eta «oso gustura» gelditu dira 37. ibilaldiaren emaitzarekin.

Eguraldiak ere lagundu egin zuten. Haize indartsua egin bazuen ere, batez ere lehenengo orduetan, ondo etorri zen eguzkiaren eragina zertxobait leuntzeko. Izan ere, eguraldi txarragoa espero zuten, baina azkenean eguzkiak ere parte hartu nahi izan zuen ibilaldian.

Esan bezala, 393 parte-hartzaile atera ziren Aizkardi elkarteko egoitzaren ondotik 43 kilometroak egiteko prest. Hori-tatik 333 gizonetakoak eta 60

emakumezkoak. 34 lagun erretiratu ziren eta beste guztiek, hau da, 359 ibiltarik ezarritako denboretan egin zuten ibilbidea. Azkarrenak 6 ordu eta 7 minutu behar izan zituen eta azkenak 11 ordu eta 31 minutu. Parte-hartzaileak eskualdekoak ez ezik, Gipuzkoa osotik etorri ziren eta baita Bizkaia eta Arabatik ere. Urrutiitik etorritako hamabost bat lagunek Aizkardik jarritako gela batean lo egin ahal izan zuten bezperan.

Opari zozketa

Antolatzaileez aparte, ibiltariak ere gustura aritu ziren ibilaldian. Hala jaso zuten behintzat Aizkardikoez. Tartean ere ibilbidea luzeegia zela esan zutenak ere izan ziren. Bukaeran, opariaren zozketan ere jende ugari elkartu zen. Izan ere, 50 bat opari inguru zeuden banatzeko. Herriko komertzio ezberdinek emandako opariak zozketatu zituzten. Mendiarekin ikusi behar dutenak: botak, motxilak, mendirako arropa... eta jatearekin ikusi behar dutenak ere: bakailaoa, arkumea, txuleta...

Antolatzaileek eskertu nahi izan dute denda guzti horietatik jasotako laguntza eta baita beraiei ibilbidearen antolaketan lagundu dieten norbanakoei eta Behar-Zana eta Zumbeltz elkarteeri ere.



Herriko Santa Barbara izan zen kontrolak egin ziren puntuetako bat. HITZA



Ibilaldian parte hartu zuten mendizale ugari izan ziren opari zozketan. HITZA

Sukaldean esperientzia duen emakumea behar da

Harremanetan jartzeko deitu **943 11 98 28** telefono zenbakira

EUSKARA ▶

'Egonaldiak familia euskaldunetan' egitasmoa abian da

Hilabete betez euskara ikasi nahi duen lagun bat etxean hartzeko prest dauden herritarrek laguntza jasoko dute

JAIONE ASTIBIA

Egonaldiak familia euskaldunetan egitasmoarekin lanean ari da Leitzaldeko Euskara Zerbitzua ere, eta Areso nahiz Leitzako herritarrei aukera honen berri ematen ari da.

Egitasmo honekin, euskara ikasten ari den bati etxe euskaldun baten bizitzeko aukera ematen zaio: egunerokotasunean, ikasten ari den hizkuntzan murgiltzeko bidea irekitzen zaio, hilabete oso batez bertako familiarekin biziz, eta etxeko bizimoduan zuzenean parte hartuz, eta nahi izanez gero etxeko lanetan, baserriko lanetan... alegia, etxe bakoitzean ohiko eginkizunak direnatan esku bat botaz. Hilabete



Areson eta Leizuan ere, herritarrek euskaldunizazioan parte har dezaketek, euskara ikasle bat etxean apopilo hartuz. J. ASTIBIA

batez «famiakide» bat gehiago izanzen litzateke etxean. Egitasmo honetan parte hartu

nahi luketen familiek diru-laguntza jasoko lukete, ikaslea apopilo hartzeagatik: 580 euro.

Edozein moduz, eskaintza honetan parte hartzeko badira bete beharreko baldintza batzuk, jakitera eman dutenez.

Euskara ohiko izatea

Horrela, ikaslea, beti ere 18 urtez goikoa izanzen dena, gutxienez, hilabete oso batez hartu behar da etxean eta gainera bakarra hartu daiteke aldiko. Egonaldiak irauten duen bitartean, bestalde, etxean hiru lagunek bizi beharko dutela eskatzen da eta ikaslearentzat bakarrik izanzen den logela libre izan, gutxienezko intimitatea eta askatasuna eskainiz. Programa honetan parte hartu nahiko lukeen familiak noski, bere kideen arteko harremanetarako ohiko komunikazioa hizkuntza euskara izatea, derrigorrezko betebeharra da, saihestezina.

Egitasmo honetan parte hartu nahi izanez gero, Euskara Zerbitzuan izena ematea besterik ez omen da egin behar, hori bai, hilaren 15a baino lehen. Informazio gehiago jakin nahi izanez gero, berriz, bertara deitzea bezalakorik ez litzateke, edo bestela, www.egonaldiak.net web orrian begiratzeko aukera ere badela argitu dute bertatik.

LEITZA ▶ KULTURA

Asketa Ttiki abesbatza berriz haruntza joateko gogoz itzuli da etxera

Katalunian izan dira Els Verdums-i trukezko ikustaldia egiten, aurreko asteburu honetan

J. ASTIBIA

Igande iluntzean iritsi ziren Asketa Ttiki abesbatzako kideak etxera, baina berriz ere itzuliko ziren. Hitz erdi bat nahikoa.

Ostegunean atera ziren Igualadarantz (Katalunia), lehengo hango Els Verdums abesbatzako egindako ikustaldiari ordainezkoa egitera. Asketa Ttiki abesbatzako kideak, zuzendaria eta begiraleak ez ezik, gura mordoska bat ere. Eta ikaragarri gustora ibili direla adierazi zioten atzokoan HITZARI: kantatu eta hango txokoak pisika bat ezagutuz gain, hemen ezagututako lagun berriekin adiskidetasuna areagotzea ere ekarri omen die eta egindako bidaiak honek. Oso balorazio ona egin zuten, beraz, bai Asketako lehendakari den ainhoa

Viguerak eta baita bertako kantariak diren Olatz Alduntzi- nek eta Ixiar Mutuberriak ere: «gauza batzuk ikasi ditugu katalaneraz, nahiz eta gaztelaraz aritu behar izan dudana Mireiarekin, ulertzeko», zioten biek hala biek.

Osteguna eta ostirala, ongi-ortiarekin eta turismoa eginez pasa omen zituzten: «*Los diablos* deitzen zituzten pertsonaia batzuk kolorezko suekin egiten duten dantzaz hartu gintuzten, gauean, hara ailatutakoan», adierazi zuten lagun hauek. Biharamonean, berriz, Bartzelonara joan ziren eta han, Montserrat, Gaudiren obrak eta lorategi ederrak ikusgai dauden Guell Parkea, Ranblak, Montjuic, eta hiria bera ikusi zuten: «Montserrat polita da», zioen batak, «Bar-



Asketa Ttikioak Montserrateko atarian. OIHANA SAENZ

tzelona hiria ere bai», besteak. Gauean, *castellers*-en entsegu bat ikustera gonbidatu omen zituzten.

Hurrengo eguna, berriz, larunbata, izan zuten kantatzeko eguna. Goizean jokoak izan bazituzten ere, arratsalde, Igualadako kaleetan barrena ibili ziren hango ohiturei jarraituz, beren talde anfitrioiarekin batera, *La Mona* deitzen omen duten txokolatezko irudi handiak bilduz eta trukean klabelinak banatuz. Bitxia iruditu zitzaion hori. Gero, ordean, kontzertua eskaini zuten hango eliz bate-

an, eliza beteren aurrean. «Urdu ere jarri ginen hasieran hainbeste jenderekin, baina gero, ongi atera zitzaigun ia-ia dena», zioten gaztetxoek eta lehendakariak ere halaxe ziurtatu zuen.

«Oso ongi hartu gaituzte, euskaldunak ongi ikusiak gaudela ikusi dugu. Bestalde, opari mordoa ekarri du ume bakoitzak hango familietatik. Harremanak jarraitzeko asmoa dugu, Oso baliagarri izan da, lekuak, jendeak, besteak nola bizi diren umeek ikus eta ikas- teko», baieztatu zuten.

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212
Anoeta-Alkiza-Hernialde.

Medikua: 65 23 39

Asteasu. Medikua: 69 24 23

Berastegi-Elduain. Medikua: 68 33 61

Bidegoian. Medikua: 68 11 34

Ibarraldea. Osasun etx.: 672411

Ikaztegieta. Medikua: 65 33 29

Irura. Osasun zentroa: 69 07 20

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Lizartza. Medikua: 68 20 77

Tolosa.

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111

▶ San Esteban: 00 68 00

▶ Gernikako arbola: 00 69 00

▶ Amarozen dispensa: 67 26 37

▶ Asunzioz klinika: 67 57 99 - 67 53 90 (larrialdia)

▶ DYA: 67 25 36

▶ Gurutze Gorria: 67 48 88

Villabona. Anbulat.: 00 69 70

Zizurkil. Aitzondo zerb.: 693930

GARRIAOK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89

▶ Donostiako autobusa: 36 17 40

▶ Taxia: 67 04 20

▶ Taxia (Leitza): 608 873016

KOMUNIKABIDEAK

▶ Galtzaurdi: 65 50 04

▶ Aiurri aldizkaria: 30 07 32

▶ Ttipi ttipa ald.: 948 631888

EUSKALTEGIAK

▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06

▶ Arramele-AEK: 67 12 14

▶ Ika (Leitza): 948 61 07 76

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur. Ollarreaga, A. Korreo kalea 2 (Tolosa). 943 670 128

Larraia M.I. Elbarren 95 (Leitza).

112

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.

tolosaldean_publici@tolosaldeko-hitza.info

Tolosa. 687 41 00 82 -

687 41 00 33.

tolosa@tolosaldeko-hitza.info

Villabona-Aitz. 687 41 00 22.

villabona-aitzondo@tolosaldeko-hitza.info

Anoeta. 687 41 00 22

anoeta@tolosaldeko-hitza.info

Ibarraldea. 687 41 00 32.

ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info

Alegialdea. 687 41 00 34.

alegialdea@tolosaldeko-hitza.info

Leitza. 687 41 01 18.

leitza@tolosaldeko-hitza.info

iragarki laburrak ▶

LANA

Tolosa. Tolosan zerbitzari bat behar da eskarmentu duna.

635 70 05 59.

Zerbitzaria. Zerbitzari bat behar da arratsaldetarako.

649 51 34 87.

